

# Aztiria-Otañu zirkularra



**P. Aparkalekua.** Aztiria auzoko aparkalekuan utziko dugu autoa.



**1. Hasiera puntua.** Gabiriako Aztiria auzoko aparkalekua da ibilbidea abiapuntua (605 m.). Parean langa bat dago GR arrastoekin, eta noranzko hori hartu beharra dago Biurraingarakoa baserri aldera.



**2. GRa uzteko bidegurutzea.** Baserri bidean 600 metro egin eta gero, pare-parean GR arrastodun langa ikusiko dugu bidea moztuz. Azti leku honetan. Langa hori eskubitara utzita, ezkerrera eta gora egin beharra dago Otañu aldera.



**3. Arrasto arrosei jarraitu.** Igoeran beste bidegurutze batekin egingo dugu topo. Gora egin beharra dago Aztiriko mendi lasterketako borobil arrosei jarraituz.



**4. Pinudian gora bidezidorra.** Ondo adierazitako bidean, pinudian gora 500 metroko bidea egin beharra. Zati batean gorosti asko ikusiko ditugu ezker-eskubi.



**5. Borda hiru herriren arteko muga.** Legazpiko lurretan, baina Zerainekin eta Mutiloarekin muga-muga dagoen borda batera iritsiko gara (760 m.). Hura ezkerretara utzita, harresia ezkerretara utzita.



**6. Otañu gaina.** Hamar minutuko igoera erosoan, Otaño-Otañu gainera iristen da (834 m.). Legazpiri dagokio. Gain airosu eta zelaitzua da, eta Aizkorri-Aloñalp gailurreria bertan ikusten da. Urrutiago, Udalaiz eta Anboto.



**7. Jaitsiera pikoa pistaraino.** Aizkorri aldera ehun metro egin ondoren, ezkerretara, otadi arteko bidezidor bati jarraitu behar zaio. 300 metroko zatian 50 metroko desnibela galtzen da, pinudi barreneko aldapa pikoa.



**8. Pistan ezkerretara jarraituz, iturria.** Oraiturrieta inguruan gaude. 500 metrora iturri bat ikusiko dugu ezkerretara. Aurrera beste 200 metro egin, eta Zabarainera iritsiko gara. Bidegurutzean eskubitara egin beharra dago, Zerain eta Mutiloa arteko muga-lekuetara.



**9. Bidetik desbideratu Aizpururantz.** Pista erosoan 700 metro egin eta gero, bide hori utzi eta eskubirantz egingo dugu Aizpuruko gain aldera (698 m.). Begiratoki bikaina da.



**10. (H)Aizpuru txabola.** Ixitura kontra berrehun metroa jaitsita, Aizpuru txabolara iritsiko gara. Peabideei buruzko informazio panela dago bertan.



**11. Berriz ere pistarekin bat.** Aizpuruko buelta eginda, berriz ere pistarekin bat egingo dugu beheraxeago. Ganadu harrapaleku bat ikusiko dugu ezkerretara, eta pistari beheraka heldu behar zaio Aztiria aldera joateko. Alustitzainen gaude, Mutiloako lurretan.



**12. Pistan behera.** Kilometro eta erdi egin beharra dago pistan behera, hasieran leku argian, bukaeran pinudi barrenean.



**13. Aztiriako errepidearekin bat.** Errepidean bukatzen da pista, Aztiriako kaskotik gertu. Ehun metro errepide bazterretik egin ondoren, ezkerrean nabarmen ikusten den herri-bidea hartu beharra dago. GRa ere bada bide hori.



**14. Herri bidetik Aztiriara.** 300 metro eginda abiapuntura itzuli gara. Aztiri erretegia, Aztiri Bat elkarte, pilotaleku margotu berria, bolalekua eta iturria ikusiko ditugu.



**1. Amaiera puntua.** Aztiriako aparkalekuan.



## AZTIRIA AUZOA

Gabiriari dagokion auzoa da, 605 metroko garaieran, eta Legazpirekin eta Mutiloarekin mugakide. Aztiri erretegia, Aztiri Bat elkarte –bere egunean apaiz etxea izana–, Santa Marina ermita eta haren kontrako frontoi txikia, eta plaza estaltzen duen pagadian bolatokia eta iturria ditu alde banatan.



## OTAÑU MENDIA

Otaño edo Otañu da ibilbide honetako puntu gorena (834 m.). Akerra mendigoizaleari eskainitako monolito bat, puntu geodesikoa eta aizkora ditu tontorrean. Legazpiko Telleriarte auzoko lurretan dago.



## AIZPURU GAINA

Zerainen eta Mutiloaren arteko muga –Legazpiko lurak ere gertu–, Goierriko meategi eremuaren zaindaritzat jo daitekeen gaina. Haren barrenean dago Zeraingo Aizpea auzoa, eta erreka bestela Aizpea kiskaltze labeak. Bailararen talaietako bat da. Ertz batean (H)Aizpuru izeneko txabola du.